

Mercedes Agirre Elkoroiturbe
Bergara, Gipuzkoa (1899-1994)

Aurkibidea

Biografia

1899an Osintxuko Laudatz baserrian jaioa. Bergarako Ahozko Bilduman entzungai dagoen Anizeta Agirrerren ahizpa zen. Gaztetan Madrilera joan zen lanera. Olan bizi izan zen, eta gerora Osintxuko kalera joan zen bizi izatera.

Zintak

BER-058

- **Proiektua:** Bergarako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data:** 1985-02-15
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Bergarako Udala

BER-068

- **Proiektua:** Linua, ehuna eta artilea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data:** 1994-03-02
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog

BER-276

- **Proiektua:** Mondragon Unibertsitatea
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1985-01-01
- **Iraupena:** 97 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Ozaeta Elorza, Arantza

Pasarteak

1. Baserriko bizimodua

- **Erref:** BER-058/002
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:01:24. **Bukatu:** 00:01:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Mertzedesen bizimodua. Jatekorik ez zen falta izaten etxean.

2. Osintxutik Madrilera neskame

- **Erref:** BER-058/004
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Mertzedes Madrilen egon zen. Itzuli zenean, hotel batean hasi zen lanean.

3. Madrilen hiru urtean lanean

- **Erref:** BER-058/005
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:05:21. **Bukatu:** 00:07:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Madrilgo kontuak. Hiru urte eman zituen bertan lanean.</p>

4. Madrilgo ipuinak

- **Erref:** BER-058/006
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:07:13. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Madrilgo pasadizoak. Bere lana zein zen; etxeko andrearekin harremana zelakoa zen.</p>

5. Donostiako hotel batean lanean

- **Erref:** BER-058/007
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:12:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Donostian hiru hilabete eman zituen hotel batean lanean. Orduko gertaerak.

6. Euskara. Hitanoaren erabilera

- **Erref:** BER-058/008
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:12:07. **Bukatu:** 00:13:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Euskara. Hitanoaren erabilera. Osintxun azkenaldian zuka asko entzuten da.</p>

Transkripzioa

<p>- Eta lehen hemen hika eingo ziñuen, ez?

- MERTZEDES: Hi guk beti.

- Hi beti, ez?

- M: Bai. Guk bai.

- ELISA: Ointxe arte Osintxun zu oso gutxi...

- M: zu ointxe asko esaten da, nik daneri hi. Nik daneri. Nik, aitzia,

pentseizu... nik hi esaten jat horri ta berak be bai neri ta...

- Hori ondio oin be bai e!

- E: Bueno, baiña Osintxuarrak famauta egon gaittuk horrekin Bergara inguru guztian e!

- M: Hi esatiakin...

- E: Hi esatiakin.

- M: Bai, [...]

- E: Oin hemendik kanpora be esaten da oingo euskara batua edo euskara zer honekin, baiña lehen honetantxe bakarrik e!

- M: Zu asko. Oin be hemen zu asko esaten da.

- E: Oin bai, baiña lehen lehen ez.

- M: Lehen ez. Danak hi.

- E: Pentsau be ez! Danak hi; aitzak-eta alkarri, aittari ta amari zu, amandriari [...] tiueri ta...

- M: Aittari ta amari zu.

- Ta ume txikixari be zu.

- E: Bai...

- M: Ta pertsona zaharreri be zu. Baiña gaztien artien... bueno! Pentsau be ez besterik! Zu esaterik...! Hi [...], hi dana.

- Ta andra-gizonen artian?

- M: Andra-gizonen artian zu.

- E: Zu. Zu andra-gizonen artian.

- M: Guk zu [kostunbrau dou] beti.

- Ta ume txikixeri be zu.

- E: Zu ume txikixeri be.

- Segun, edade batera arte bai...

- M: Bai, txiki-txikixak dienien bai. Mutil koskorrak eta dienien hi.

- E: Bai, txiki-txikixak eta dien artian... Gero bai.

- M: Bai, jenerala hi. Bai. Horixe kostunbriori zan hemen.</p>

7. Begirune handia abadeei

- **Erref:** BER-058/010
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:15:51. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Antzina abadeek botere handia zuten. Begirune handia. Abadeen izenak.

8. Eskolan ikasitakoa

- **Erref:** BER-058/011
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan ikasitakoa, "burua salbatzeko beste...".

9. Abadeei begirunea

- **Erref:** BER-058/012
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:18:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Abadeei baserrietan ematen zitzaizkien janak zeintzuk izaten ziren. Konjurua. Domu Santuan "olatak" (3 puntako ogia). Orduan dena ematea izaten zen, nahiz eta etxean jatekorik egon ez.</p>

Transkripzioa

- Eta hemen abadieri eta ekartzen jakuen ba basarrittik garixa eta...
- M: Jesus...! Garixa ta artua ta...klase dana. Oilasko parie be bai [...] junda ta...
- E: Egurra be bai.
- M: Egurra be bai ta...
- E: Ta gero Domu Santutan olatak be bai.
- M: Olatak be bai.
- E: [Ermura] juten giñan behintzat abadiaana [...] neska koskorrak giñala ta olatak emoten zoskuen...
- Olatak ze die?
- M: Hiru puntako ogixa eitten zan ta harek erregalo emoten zien.
- E: Mezetara eruaten zien ta gero...
- M: Zuk zeure... Zeuk besotan hartutako bati, ba, Domu Santutan emoten jakon, haura olatia esaten da.
- A! Karapaixua.
- M: Ez dakit nik...
- Karapaixua. Karapaixua hemen ez dozue esaten, olatia esaten dozue. Hola arrautzia ipintzen jakona ta...
- M: Bai, nahi bada bai.
- Ta txorixua barruan ta...
- M: Bai, hortaikoxia da.
- Guk karapaixua esaten dotsau.
- M: Bai, guk horixe, olatia. Orduan dana zan emotia. Etxian nahiz ta ezebez jan ez, dana emon. Ta zestokada arrautzak ta gaztaiek eta... danak batzen zittuan abadiak! Ta gero, hona etorri zian abadiak laga otsen. Horrek... galdu zien, zihero galdu zien! Ta ondo dao hori geiñera.

10. Baserri giroko sineskerak

- **Erref:** BER-058/013
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:18:12. **Bukatu:** 00:18:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Maiatzaren 3an konjurua egiten zen. Hirukurutzetako (Santukurutzetako) eguna. Monagiloa eta abadea zestoarekin pasatzen ziren baserriz baserri.

Transkripzioa

- E: Eske lehen konjurua be eitten zan. Maietzan hiruan hasten zan Hirukurutzetan, Santikurutz egunian hasten zan.
- M: Bueno, baiña han konjurua ein ta hemendik [konjurua eittia] ez ta iguel.
- E: Baiña esaten dot hori be ezautu doula.
- M: Bai, ezautu gendun.
- E: Basarririk basarri juten zien: monagillua, abadia... Zestuakin [hartuta]. Hi ez hitzan ibiliko...

11. Auzoko abade baten ohitura

- **Erref:** BER-058/016
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:20:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Abade baten jatorria. Urtean behin baserritar guztiei bazkaria ematen zien (baserri bakoitzetik kide bat joaten zen).</p>

12. Egurretako afaria

- **Erref:** BER-058/017
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:20:49. **Bukatu:** 00:21:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Egurretako afaria. Egurrak batzen zirenean ematen zen afaria.</p>

13. Sineskerak; Sorginen kontuak

- **Erref:** BER-058/018
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Umetan, ipuinak sutondoan. Sorginen kontuak. Kalabazari begi-zuloak

egin, kandela bat barruan sartu eta horren inguruko ipuinak. Armak gehitzearekin batera desagertu ziren kontu horrek guztiok.</p>

Transkripzioa

- Zuek txikixak ziñatenian, neguan ta ipuiñak kontatzen ta pasatzen ziñuen denporia? Kontu zaharrak eta... jakingo dittuzu zuk batzuk.

- M: Aittajunak eta, aittajunak [eitten eban].

- E: Sutonduan jarritta.

- M: Bai, bai... [...]

- Dotriñia ta esaten giñuan guk baitta.

- E: Bai... dotriñia ez, hola... ipoiñak.

- Ta ze ipuin edo ze? Sorgiñen kontuak eta bazian?

- M: Sorgiñen kontuak bai. Sorgiñak halako lekutan baziela ta... Sorgiña ordun asko zan. Baiña tirua jarri zanian derrepente danak ezkutau zien.

- E: Ta, Mercedes, azkenengo, zu akordauko zara, hemen txaran urtetzen zebela...

- M: Bai, bai, bai.

- E: Hau izan zan ona. Gero horra jentia etorri eitten zan kanpotik be e!

- M: Pentsaik!

- E: Sekulako argixak-eta ikusten ziela ta geu be juaten giñan ta hamen armia sartu zanian danak desaparezidu zian.

- M: Bai ba! Pertsonak zien! Kalabaziari eitten otsan, ipiñi kalabazia [puntan baten] bai, ta ein begi-zuluak ta ahua be bai eta kandelia barruan biztuta ta bildurgarrixa haura. Ni akordatzen naiz [Azkortako] Eladion entzueria, zuk ezautu be bai...

- E: Eladio? Bai, ezautzen [neban].

- M: Eladio, gizon haundi bat zan...

- [...]

- M: Haura Bergaratik badator ta [... geruao ta haundixao] eitten ei jakon zeozet, [...], ta geruao ta haundixao eitten ei jakon... zihero bildurtuta [...n] lo einda etxera juandakua hauraxe be! Bai, dana sorgiña zan orduen! Gure aittari entzunda nao ni, katu marrusarak baiña ikeragarrixak! Hor [...torre] aldien. Haura [...] etxera. Ta bildurtuta haura be! Baiña baten batzuk eindako marrusarak! Ordun danak sorgin ta personak zien, tontolapiko pilla bat.

- Orduan zuk ez ziñuan siñisten holako ipuiñetan...

- M: Bee...! Nik e... ez dakit nik siñisten neban baiña... Ez siñistia hobe neban orduan be ta oin... Orduen holakotxe tontakerixak eitten zittuen. Ta gero, ba, pistola jarri zanian, dana zihero emendau.

14. Baserri giroa; Kofradiak

- **Erref:** BER-058/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:27:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Osintxuko kofradiak. Behia hiltzen zen eta "puestia" egoten zen. Okela hura baserrien artean banatzen zuten. Abadeari okela-zati onenak ematen zitzaizkion.</p>

Transkripzioa

- Osintxun orduan kofradixak-eta zela eitten ziran?
- M: Kofradixak, e... Ba, orduan be behixa hiltzen zan hemen...
- Behixa ala txahala?
- M: Oin txahala, baiña orduen behixa hiltzen zan. Behixa hiltzen zan eta puestia esaten jakon, egosteko, iztarrak, iztarra edo kentzen otsen. Ta beste geindikua, sobratzen zana, etxe bakoitzak [rekogitzen] eban. Porejenplo, apuntauta egoten da, ezta? Bueno, ba, sobratzen zan okela haura, oin karnazeruak hartzen jaue, ta behixa nola izaten zan haundixaua...
- E: Elizpian partitzen zan orduan.
- M: Bai, elizpian partitzen zan. Eta, ba, eruten zan bakoitzari tokatzen jakona. Kilo bat edo kilo ta erdi edo... tokatzen zana, basarrixak atzera jasotzen eban hori, haura okela haura.
- E: Neu be akordatzen naiz...
- M: Ta gero egosten zan haura eta odolostiek be eitten zien orduen.
- E: Baitta. Geure behien be eitten zien odolostiek.
- M: Bai, odolostiek eitten zittuen. Eta... haretzek jan ta...
- Ta behixa zela izaten zan, txandaka izaten zan ala...?
- M: Bai, ointxe bezelaxe.
- E: Baiña kalekuak sekula ez zaban ein e!
- M: Ez, ez, basarrikuek.
- E: Basarrikuek bakarrik.
- M: Basarrikuek bakarrik, bai.
- Ta abadiari emoten jakon eze?
- M: Abadiari emoten jakon onen danak.
- E: Bai, solomillua, mingaiña...
- M: Solomillo, mingaiña... eta... ostien emongo otsen iztarreko okela... ez dakit nik, iztarrak egosi eitten zien ala ze eitten zan...
- E: Onena behintzat esaten zaben.
- M: ... Baiña bastante gauza emoten jakon abadiari orduen.

15. Kofradia eguna

- **Erref:** BER-058/022
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:27:32. **Bukatu:** 00:27:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Kofradia eguna pasatu eta hurrengo eguna "San Matei" izaten zen. Meza nagusira abade mordoak joaten ziren. Auzoko abadeak kanpotik etorritako abadeei bazkaria ematen zien.

16. Euskara. Berorika

- **Erref:** BER-058/023
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:27:56. **Bukatu:** 00:28:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Abadeei berorika egiten zitzairen; errespetu handia.</p>

Transkripzioa

<p>- Orduan abadiari berori esaten jakon? - M: Bai. Bai, bai. - Beti...? - M: Horixe berori! Enee...! Abadiari errespeto asko jakon orduen ta abadia asko errezatzen ta egoten zan. Beti pasiuana ta beti liburuakin ta beti errezatzen egoten zien orduko abadiak! Ta han pasatzen [zanian] txapelari hola erein barik ez [...]... - Reberenzia... - E: eskuan atxurra hartuta abaderik iñok ikusiko... - M: Ke ba! - E: ta gaur abadiak ikusten dittuu geure modoko baten lanian.</p>

17. Erromeriak

- **Erref:** BER-058/029
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:32:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Erromeriak. Dantzak non egiten ziren; zenbat korro egoten ziren.

18. Aratosteetan, Bergarara

- **Erref:** BER-058/031
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:33:39. **Bukatu:** 00:34:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Aratosteetan, Bergarara joaten ziren.

19. Gazteen arteko borrokak

- **Erref:** BER-058/032
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:34:16. **Bukatu:** 00:35:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gazteak jai egunetan mozkortu egiten ziren eta gero borrokan jarduten zuten.</p>

20. Emakumeen bizimodua baserrian (I)

- **Erref:** BER-058/033
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:35:12. **Bukatu:** 00:36:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Emakumeak gizonezkoak baino lan gehiago: etxean eta etxetik kanpo. Familia gehienek ume asko izaten zituzten. Abadeak honen inguruan esaten zituenak.

21. Emakumearen bizimodua baserrian (II)

- **Erref:** BER-058/034
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:36:18. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Emakumearen bizimodua: ume ugari mundura ekarri; lan asko egin eta jateko ezer gutxi izan. Antzinako txanponak zeintzuk ziren. Diru pixka bat lortzeko emakume batzuk egin behar izaten zituztenak kontatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Orduan, emakumia umiak eukitzeko ta...
- Umiek ugeri eukitzeko eta lan ugeri eitteko. Ta ezebez jateko gauza dezenterik! Ez zeuen dirurik eta! [...] emakumia gorrixak pasautakua da.
- Jana euki ezker...
- Ez mediku bat, etxien famelixia izen... gorrixak ikusittako emakumiek. Danok.
- Eta porejenplo, jana egon ezker lehenengo izango zian... lehenengo gizona, gero umiak eta azkenengo emakumia?
- Gizona aurretik, bai. Azkenengo sobratzen zanak haura. Egongo zien besterakuak be, beren burua maittiao zeбенak, baiña jenerala holaxe. Holaxe. Geiñera kafe puskat pagatzeko ez zeбен eukitzen ta... Ezebez. Dirurik ez. Ezek ez zeban balio ta. Dozena arrautziak zazpi txakur haundi. Zortzi-zazpi... Patatiakin, kiluakin txakur haundixa ta hiru xemeiko bi kilok. Ostiengo gauza guztiek halaxe eren. Ezekin be dirurik hartu ez ta nun eukiko ziñuan ba jazteko ta zetarako... alperrik euen gauzia merke! Zuk ez badaukazu... Gure ama zanak esaten ebana, lauzikua zan lehenao, nik ez naban ezautu. Gure amak eta ezautu zeбен lauzikua.
- Ze zan lauzikua?
- Lauzikua zan dirua. Gero xemeikua ta txakur haundixa zien bezela,

lauzikua. Ta harek esaten eban: "Zetarako da idixa lauzikuan egotia lauzikua ez badaukazu?" Harek horixe esaten eban ta errezoia eukan. Ezekin dirurik hartu ez, miserixa baten bizi zien orduko emakumiek. Eta hemen goixan, hemen goiko andrak domeka [goizien], zapatuan gorde bai, garixa edo artua edo... garixa jeneralian, hor garixa dezentia izeten zan ta, eta zangen bat... Zangia badakizu zer dan? Hola, ura juteko zangak... halako zangen baten gorde eta bi edo hiru kilo hartu ta, nere aiztiak errota eukan ta panaderixia, haraxe diru puskat hartzera. Gizonen isilik e! Gizonen isilik. [...] puskatzen zeoze-zeoze eruteko. Haura isilik, aurreko egunien etarata, meza nagusittara datozenien hartu albuen ta ekarteko. Holaxe bizi izendakuak [dira hemen] Olabarri ta [Geintxoitti] ta Euzkitza ta honek danetan e! Holaxe bizi izendakuak dia horrek. Guk ez giñuan hori ikusi e, gure etxian ez zan hori ikusi, baiña hemen holaxe. Neuk ikusittakua.

22. Emakumearen bizimodua baserrian (III)

- **Erref:** BER-058/035
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:41:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Emakumearen bizimodua. Gazterik hiltzen ziren. Bizimodu latzak izaten zituzten gehienak. Erabiltzen zituzten arropak. Jateko, artoa eta esnea. Lehengo kontuak zelakoak ziren; gaurkoak.

Transkripzioa

- Emakumiak, orduan, gazterik hilgo ziran... hainbeste ume euki, hainbeste lan...

- Bueno...! Emoten eben nik oin daukaten beste urte berrogeta hamar urtekin bai, gitxiaokin. [Gaztiak...] erak baiña. Holaxe. Gero, hagiñik be ez, buruko [emendixa] jantzitta, erroa luze-luze gona haundi batzuk, beste... txabria edo esaten jako, beste amantal haundi bat. Bueno... zaharra emon ez ba? Horixe! Zaharra? Hauraxe zaharra! Gero alimentua bapez...! Esnia ta artua ta zerak baiña, batzutan beste gauza bat jateko gogua [be ona eitten da] ta falta haura dana.

- Umia euki ta...

- Bai, umiak

- ...haren saldia...

- Bai, haren saldia [geiñera] kendu ta gizonak hegatzita. Bai, "ume bat ein leikek eta ez dakit zer ein leikek eta... [hartik bera]! Lan edarra dok haura!" Umia eukitzia zer dan ez daki.

- Orduan ez zan baloratzen hori.

- Ezta figurarik be e! Bueno...! Gizonak ezta pentsau haura padeziduta eitten zanik be! Bueno... Bai. Emakumiek gorrixak ikusittakuek zien ta hil be eitten zien asko geiñera. Hil. Hil asko.

- Normala, ez zien ba hilko? Haren gorputzak hartuko zebe egurtua!

- Bueno...! Horixe egurtua! Bai horixe! Ta halaxe bizi izen zan ba orduen jentia.

- Umia eittetik umia eittera segittuan.

- Bai ba! Urte bigarrego barrixa. Haura hazten daniel beste bat barrixa, hurrengo beste bat barrixa. [Oregin] be hamabost edo izen zien. Hamabost ume.

- Hamabost, esan errez eitten da baiña...

- Sei edo hil zien. Ta artian be juntau-jantau jutia komeni gizonorri ta atsua aspertuta, leporaiño berakin!

- Ez zan ba egongo?

- Aber ba! Holaxe mundua. Lehengo... zibilizaziñorik be ez bihar danik ta...

- Orduan, oingo ipuiñak, gizonak andriari lagundu ta... ipuin horrek ezta...

- Bueno...! Ezta pentsau be holako gauzarik! Gizonak ez zebe eitten orduen han ezebe etxeko jiran. Ta geiñera bestiak eitten dabena apreziau ez! Haura berez eitten zalakuen! [...holaxe bizi izen zien...] Gaur basarrixan don dare danak, don! Bai. Andrak be manejatzen dabe beste estilo batera ta gauziakin dirua hartzen dabe geiñera. Esniakin, arrautziakin, klase danakin diru asko hartzen dabe ta manejauegitten dira hobeto. Ta orduen gizonak hemen [Iturgaitteko] ta honek esaten zebe: bildotsak saldu, [bildotsen] dirua gizonak, ganauak saltzen bazian gizonak harek diruak ta andrak esne puskiakin ta arrautziakin hartzen ebenakin ibili deittela. Etxeko nezesidadiak harek handik ein [deittela]. Holaxe.

23. Gizonezkoaren jarrera emakumearekiko

- **Erref:** BER-058/036
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:41:42. **Bukatu:** 00:43:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gizonezkoen jarrera emakumearekiko. Umeekin izaten zuten erlazioa.

Transkripzioa

- Ta egurra emotailiak bazian gizonak?
- Ez dakit nik egurra... ni ez naiz hainbeste akordatzeko, baiña borondate haundirik ez. Ez zebeu pentsatzen, andriak eitten baeban lanik ez zebeu apreziatzen. Haura, balorerik ez zotsen emoten hari. Ta umia eittia ta umia haztia, ba, ezebe ez zalakuen. Bai. Ta ez die horrek hola e!
- Umiekin ze tratatu eukitzen zebeu? Zaintzen zebeu umia edo...?
- Bai, bai. Zeoze zaintzen zan orduen umia. Garbittu ta bere gauzak eitten jakon ta...
- Bai, baiña gizonak ezebez...
- Gizonak ezta ikuturik be! Gizonak ez zotsan umiari...
- Pixkat koskortu arte kasorik be ez...
- Ez, kasorik ez. Gero zeoze, altzuan euki edo, kontu batzuk esan umiari. Eitten jakuena, beste batzuk beittu be ez igual, baiña bueno, jenerala... beria dau ta. Ezta? Baiña, holaxe. Eulixak jaten basarrixan umiek. Eulixak jaten. Eulixa zan, baiña... baztarra guztiek, hola, txoko guztiek euli beltzez bete-bete [einda]. Umiek dana musutik ziher eulixak janaz. Ta andrak lana besterik ez zebeu eukitzen ta banastan baten ipini umia ta lanera! Edo garbiketia ein edo etxeko zeoze ein edo... sorora erunda hantxe ipinita be bai ta, danera eitten eben.
- Lehengo bizimodua negargarria...
- Negargarria, negargarria.

24. Emakumearen bizimodua baserrian (IV)

- **Erref:** BER-058/038
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:43:24. **Bukatu:** 00:44:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Emakumearen bizimodua.

25. Jatekoen ingurukoa azalpenak

- **Erref:** BER-058/043
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:47:56. **Bukatu:** 00:49:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Jatekoen ingurukoak. Lekak eta porruak geroago hasi ziren jaten. Gaztaina asko jaten zen. Gaztainadiak.

26. Dolarea ekarri eta sagardoa egiteari ekin zioten

- **Erref:** BER-058/044
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:50:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Sagastiak eta pinudiak. Dolarea ekarri eta sagardoa egiteari ekin zioten.

Transkripzioa

- Ze klase zeuan sagarrena? Urtebete sagarra...
- Bai. Gezia, urtebete sagarra eta...
- San Juan sagarra?
- San Juan sagarrik ez zeuen. Ostien ez dakit... [zuma]-sagarra, madari-sagarra... Horretxek eren. Bai.

27. Sagar klaseak

- **Erref:** BER-058/045
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:50:49. **Bukatu:** 00:51:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Sagar klaseak: geza, urtebete sagarra...

28. Bergarako euskara

- **Erref:** BER-058/047
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:52:52. **Bukatu:** 00:56:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Bergarako jendea osintxuarrentzat. Bergarako berbeta. Osintxukoa hobe delat uste du. Eibarko euskara, Plazentziakoa.

29. Abereen inguruko lexikoa

- **Erref:** BER-058/050
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 01:01:22. **Bukatu:** 01:01:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Abereen inguruko lexiko ugari galtzear dago. Uztarriaren inguruko berbak.

Transkripzioa

- Eta lehengo baserriko tresnak, hagiak eta izaten zian ba...
- Izeten zien, ba, tresnak, aria, goldia, atxurra, eskuberia, segia, polaiña, igiteixa, sega-igiteixa...
- Sega-igiteixa zelakua zan?
- Sega-igiteixa... bat izeten da hagiñak dauzkana. Ta bestia izeten da, sega-igiteixa, zabalaua ta hagiñik ez daukana.
- Hagiñik baekua.
- Bai, bai.

30. Baserriko tresna zaharrak

- **Erref:** BER-058/051
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 01:01:48. **Bukatu:** 01:02:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Baserriko tresna zaharrarekin zerikusia duen lexikoa.

Transkripzioa

- Gero abarkak josteko be izeten zan. Abarkak nik neuk be josiko nittuke geiñera! Gure aittak josten zittuen. E? Ebaitzen dia abarkak ta muturra josten jakuen. Pusketia kendu eta irabaliakin josi. Ta gero egoten zan erremintta txiki bat [ahua] dana. Ta lehen goguan neban ta oin ahaztuta daukat zela esaten otsan hari. Holako mangu txiki bat eukitzen eban ta ahua, ta porejenplo, abarkiari sartu bihar jakon zozkixa, zozkixa esaten jakon, han eitten eban harek jo maillukiakin ta zulua. Ta hemen be beste zulo bat, hemen be beste bat, hemen be beste bat, abarkian buelta guztia. Ta gero sartzen zan handik haura.
- Ilobalia...
- Ilobalia ez! Zozkixa! Izeten zan narruzkua; narruzko estu-estua. Bai. Harekin formatzen zan ha, zera, abarkie.

31. Abarkagintza

- **Erref:** BER-058/052
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:02:22. **Bukatu:** 01:03:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Abarkak josteko prozesua eta tresna batzuen izenak. "Soskixa".

Transkripzioa

- Guri [Karlosek] jardun zeskun esaten kubiartekin be eitten ziala sasoi baten...
- Abarkak bai. Kubiartak ebaitten zittuen ta atzia zatarra eukitzen eban, ezta? Atzien ebaittako zera, ta aurrie be bastante... zakarrak zien baiña ondo ibiltten zan. Lehelengo haretzek urten eben. Gero beste abarka honek zerok, polittauak, gomazkuak, urten eben. Gero harek kaskau ein zien, harek zatarrauak zien ta.
- Ta umetan ze, oinutsik etxian?
- Ez! Abarkekin ibiltten giñan.
- Danak gomazkuak?
- Ez, ez, ez. Guk dana narruzkua.
- Narrua...
- Bai.
- Ta narrua nundik jiratzen ziñuen?
- Ganauana. Ganauana edo txahalana, ganauana ekarten eben. Ta beratzen ipintzen zittun gure aittak ta berak josten zittuen abarkak. Ta erosi be bai. Abarkak saltzen egoten zien. Oin umienak egoten dien moduen, baiña beste klase baten. Ta horrek gorrixak dien moduen, ba, harek zurixak, narru... narruzkuak. Haretzekin ibiltten giñan.

32. Abarkagintza

- **Erref:** BER-058/053
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:03:20. **Bukatu:** 01:04:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Abarkak gurpilen gomarekin egiten ziren sasoi batean. Abarka klase desberdinak. Abereen larrua beratzen utzi eta gero josi egiten zituen aitak.

33. Ezkontzak etxeetan egiten ziren

- **Erref:** BER-058/054
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:04:23. **Bukatu:** 01:05:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ezkontzak etxeetan egiten ziren. Etxeko sarrera handiari larraina esaten zioten. Bikoteak Bilbora edo Donostiara joaten ziren egun bete edo bi egun pasatzera. Anekdotak bat hirian.

34. Abereen inguruko kontuak; lexikoa

- **Erref:** BER-058/057
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:10:12. **Bukatu:** 01:13:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ardiak. Aita oso aberezalea. Abereen jatekoa: arbia, baba beltza, belar ondu askorik ez. Feria kontuak. Bigantxa, idiskoa, "biaia" (bigantxa), behia, idia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com